

TxiK!tto

2016ko maiatza

160 zbk.

Herriko idazleen
harrobia





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa XXII. Ipurterre 2016

... eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXII. Edizioa antolatu berri du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa, aurten, 1.000 ipuin eta gutun jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan fina egin duzue aurten ere, txalotzeko moduko lana.

Beraz, irabazleei zoriontzeaz gainera, parte hartu duzuen guztiei gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatu, Eibarren badugu-eta harrobi ederra.

Urteroko moduan, aurten ere, maiatzeko Txikitto!ko alea ia osorik eskainiko diogu lehiaketari. Bertan dituzue aurtengo ipuin irabazleak. Zabaldu orriak eta gozatu!

Ipurterterre 2016

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



Bi pertsona kanariar

Bazen behin neska bat eta mutil bat Kanariasen bizi zirenak. Behin igerilekura joan zen neskatua eta itotzeko zorian zegoen. Mutil bat hasi zen eta bota egin zen laguntzeko, gero mutila gosaltzera joan zen. Sukaldetik atera zen, begiratu zuen pistinara eta beste neska bat itotzen ari zela konturatu zen eta salto egin zuen. Azkenean sorosle izendatu zuten.



LH1

LH2

Zoihartzte Elizegi
J. Mogel Ikastola

Ilerik gabeko lehoia

Bazen behin lehoi bat ilerik gabekoa. Egunero esaten zion bere amari:

- Zergatik ez daukat ilerik eta zuk bai?
- Oraindik txikia zarelako- erantzun zion amak.

Egun batean lehoia paseatzera atera zen eta tigre batekin topo egin zuen.

Tigreak esan zion lehoiari:

- Zergaitik ez daukazu ilerik?
- Ez dakit- erantzun zion.

Tigreak ile laranja asko zeukan, orduan lehoiari eman zion zati bat. Ondoren ileapaindegira joan ziren tigreaki geratutako hutsuneetan marrak jartzeko. Horregaitik tigreak ile marradunak ditu, beltzak eta laranja, lehoiak, aldiz, lehoiak asko dauka.



LH3

LH4

Salma Aghbalou
Urkizu ikastetxea





Ipurterterre 2016

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



LH5

LH6

Ainara Landa
La Salle-Isasi ikastetxea

Bakea beti da posible

Bazen behin, Palestinako herrialde batean, Rutti izeneko gazte haurdun bat. Umea jaio zenean, Gissel izena jarri zioten.

Txiki-txikitatik, Gissel eskuzabala izan zen. Bere ama, jainkozalea zen. Eta beti esaten zion: “Egin besteei zuri egitea gustatzen zaizuna”. Gissel, egunero-egunero joaten zen bere amarekin egin-berriko ogia, egoera xume, txiro eta apalean bizi zen jendeari ematera.


Pozik bizi zen bere amarekin. Baina egun batean, minbiziak jota, Rutti hil egin zen.


Gissel, bere omenez, hainbat hilabetez, doluz egon zen. Dolua bukatu zenean, amak irakatsitakoa jarraitzea erabaki zuen. Hurrengo egunetan, Gisselek ogia eraman zien hainbeste abantaila ez zituzten umeei, lehen amarekin egiten zuen bezala. Bere alaitasuna berreskuratzen ari zen poliki-poliki.

Dagoeneko negua iritsi zela, etxerako bidean, Gisselek ume israeldar txiki bat aurkitu zuen kartoizko kaxa batean ostatu eske. Gisselek, bihotz onekoa zenez, besoak zabalik hartu zuen etsai bezala zuten herrialdeko umea.

Etxera eraman zuen umetxoa. Eta han garbitu eta arropaz aldatu zuen. Goseak hilik zegoenez, txokolate bero bat eskaini zion. Biak sofán eseri eta hizketan hasi ziren. Denetaz hitz egiten zuten berandutu arte. Halako batean, Gisselek, umetxo hark, izen bat eduki beharko zuela pentsatu zuen. Eta galdetu zion:

- Nola deitzen zara?
 - Noam. Ni Noam deitzen naiz.
- Gisseli irribarretxo bat irten zitzaion.
- Zertaz ari zara barre egiten?
 - Ba al dakizu zer esan nahi duen nire izenak?
 - Ez, inoiz ez naiz horretan pentsatzen geratu-esan zuen irribarre zabal batekin. Zer esan nahi du?





– Gozamena, poza, sinpatia...

Orduan, konturatu zen Gissel, Noam lotan geratu zela.

Hurrengo goizean, Noam, gela polit batean esnatu zen peluxe-zko hartatzeko inguratuta. Gela aztertzen hasi zen, eta bere alboan, Gissel aurkitu zuen.

– Egun on! Ondo egin ahal duzu lo? Baiezkoan nagoela, pentsatzen egon naiz, eta ... nahi al duzu nirekin geratu zure familia aurkitu arte?

– Bai! Bai! Bai!

– Ondo da... Ondo da... Gaur erosketak egitera joango gara!

– Bai horixe!

Gisselek Noam erosketak egitera eraman zuen. Biek oso ondo pasatu zuten. Orduan, Gisselek Noam jolas-parke batera eraman zuen. Noam pozak akabatzen zegoen. Arratsalde osoa dibertitzen egon ziren. Baina etxeratze bidean, mutil-talde batekin topatu ziren. Eta Noami iseka egin zioten:

– Nolatan ume-moko israeldar bat ausartzen da hona etortzen?

Eta Gisselek erantzun: “Eta noiztik lagatzen zaie zuek bezalako baldar batzuei kaletik paseatzen?” Umeek, iraindurik, alde egin zuten. Eta Gisselek esan zion Noam-i: “Ez egin kasu horrelako mutilei. Inportanteena barrukoa da, ez kanpoko. Berdin du nongoa zaren, baldin eta bihotz onekoa bazara.” Biak, besarkatu ziren. Eta hurrengo egunak pozik eta azkar pasatu ziren.

Arratsalde batean, Israelgo erregeak atea jo zien.

– Arratsalde on andere, entzun dut nire semea hemen dagoela. Sar naiteke?

– Bai, noski. Noam! Etor zaitez hona hau ikustera !

– Bai! Zer gertatzen da?

Aita eta semeak elkar ikusi zutenean, besarkatu eta negar egin zuten. Baina Noam kezkatzen hasi zen.

– Zer da kezkatzen zaituena? galdetu zion aitak.

– Ez dut Gissel laga nahi.

– Ez kezkatu horregaitik. Gisselek oso apala dela erakutsi du eta horregaitik berak nahi badu, bakea sinatuko dugu Palestinarekin eta bera nire kontseilaria izendatuko dut. Horrela gurekin etorriko da bizitzera.

– Bai! Ohore bat izango da.

Orduan, Gissel Noamekin eta Noamen aitarekin bizitzera joan zen. Eta Palestina eta Israel, bakean bizi izan ziren betirako.



Ipurterterre 2016

UH eta DBHko lpuin behiaketa



DBH1

DBH2

Miren Ferrero
La Salle Azitain

Noiz hasiko zara nirekin euskaraz

Kaixo lagun:

Euskaraz dakiten pertsonak ezagutzen ditut, baina badirudi hau erabiltzea kostatzen zaiela.

Horregaitik bidaltzen dizut gutun hau. Zuk ere euskara zabaldu dezakezu eta euskararen garrantzia ulertzeko, adibide bat jarriko dizut.

Udazkenean, sute asko daude eta hauek, eraikin eta lurraldeak suntsitzen dituzte. Euskararekin gu gara sua, guk desagerrarazi dezakegu hizkuntza eder hau. Gure arazoak, soluzio errezagoa du ordea, hizkuntza erabiltzea. Solairu asko dituen eraikin batean, sua behelaldean hasten bada, gora igotzen da pixkanaka. Nik, sailkapen bat egin dut gure gizartean eta solairuekin zerikusia du. Gure aiton-amonak beheko solairua dira. Hizkuntza maitatzen dutenak, baina sute batean bezala, desagertuz doaz eta haiekin, euskara. Erdikoak berriz, gure gurasoak dira.

Batzuk badakite hizkuntza erabiltzen eta lanean euskaraz aritzen dira. Beste batzuk ordea jakin, badakite, baina haien bikoteak ez, hortaz, erderaz aritzen dira. Goiko solairuak, gazteak eta umeak bezala identifikatu ditut. Guk atera behar dugu aurrera euskara, eta hain zaila dirudien ekintza hau poliki-poliki betetzea. Zer gertatzen da sua goiko solairuetara heltzen denean? Horixe, erre egiten dira besteekin batera. Gure esku dago euskara ez "erretzea" eta desagertzea. Gure esku dago gure ondorengoei irakastea eta gure ohiturak gordetzea. Gainera, gure eraikin hau osorik erreko balitz, beste bat sortuko litzateke gainean eta ez da hori euskararentzat nahi dugun etorkizuna, ezta?

Espero dut adibide bitxi xamar honekin euskararen garrantzia ulertzea, eta ez da inoiz berandu gauza berriak ikasteko. Hau esanda, noiz hasiko zara nirekin euskaraz?

Hurrengora arte.





DBH3

DBH4

Izei Sologaistua
Mogel Isasi DBHI

Noiz hasiko zara nirekin euskaraz

Noiz hasiko zara nirekin euskaraz, galdetu zenidan 7 urte nituenean. Inoiz ez nizun euskaraz egin, amona. Behin eta berriz eskatu zenidan, mila bider errepikatu, baina nik nahiago nuen kontra egin eta gazteleraz mintzatu. Zu gertu bazinen, orduan eta maltzurutasun handiagoaz erabiltzen nuen erderazko hitza. Hitz bat bera ere ez nizun esan euskaraz, zure euskara maiteaz, hitz bat bera ere ez. Inoiz ez. Bi hartu ditut, zapore mikatza dute.

2007ko abenduan bihotzeko batek astindu zuen gorputza. Larrialdi gelan batu ginen denak, zure bihotz hauskorra errekuperatu egingo zen esperantzak urduritzen gintuela. Zuriz jantzitako gizonezko batek gelan agerpena egin zuenean, nire barnean sortutako korapilo indartsu batek nire arnasketa trabatu zuen. Aita eta osaba lekutik altxatu ziren, mantal zuridun gizonak prest zekarren mezua jasotzera. Hamar segundo baino ez ziren izan baina hain egin zitzaizkidan luzeak... Medikua hitzak entzutean aitak ni begiratu ninduen. Begirada hartan ikusi nuen zure heriotza, aitak isurtzen zuen malko bakoitzean. Alde egin nuen gelatik. Minak ez ninduen geldirik egoten utzi. Dagoeneko beste bi desegin dira nire eztarrian behera.

Joan ziren eta zentsu guztia eraman zenuen zurekin. Aita depresioak lapurtu digu, handik ona dabil norabide barik, zentsu gabeko espiral errepikakor batean murgilduta. Alkohol usain bortitzez heldu izan da askotan etxera, beste batzuetan sinpleki ez da etxera etorri ere egin.



Amak utzi egin gintuen duela denbora bat jada, brasildar tipo batekin egin zuen alde maiteminak jota. Ez nuke gaiaz gehiago mintzatu nahi, amona. Braddek burua galdu du. Ez du atzean utzi oroimenean daukan zure irudia. Denbora gehiegi geratu zitzaion zuretzat. Hamalau urte besterik ez eta denetarik sartu du gorputzean dagoeneko. Bai amona, Bradd drogek eraman dute, ama gizaseme brasildar batek eta aita, aita zoramenak eraman du, zu gabe bizitza suposatzen duen zoramenak. Zuk egiten zenuen dena zentsudun. Bost eta seigarrena badoaz barrura.

Gaur amona, behingoaz, euskaraz nabilkizu. Ez dakit zure agurrak euskaraz mintzatzearen zentsua piztu zuen edo guztiz kontrakoa gertatu ote zen gertakiaz, baina euskaraz ari naiz.

Mezu hau osatzen duten euskarazko hitz bakoitza, izan zirena omentzeko daukadan modu bakarra da. Zuretzako dira eskutitz hau konposatzen dutenak, denak zureak. Zazpi, zortzi.

Bakarrik nago. Bakarrik sentitzen naizela esango nuke, sentitzea, ez sentitzearekin konpon daitekeelako amona, baina ez, bakarrik nago benetan. Nire gorputza, honek barnean gordetzen duen nire nia eta zu oroitzeko erabiltzen dudun pentsamendua dira nire posesio bakarrak. Ez dakit zer egin, dena galdu dut jada eta ez dut gelditzen zaidan bakarra galdu nahi. Ez dut burua galdu nahi amona, ez dut zoramena espermentatu nahi. Bi gehiago eta laster gara.

Zurekin nahi dut elkartu. Zure hitz goxoez nigan probokatzen zuten zirrara epela sentitu nahi dut. Zure eskuetan marrazten ziren ximurrek atzean gordetzen zituzten istorioak berriro ere entzun. Zure begi berdeen begiradaren babes sendoaz blaitu. Amona, zurekin nahi dut elkartu eta gu elkarteak pilula hauek nire eztarrian barrena sentitzea esan nahi du. Hamalaugarrena eta hamabostgarrena nire sabelean egongo dira dagoeneko. Amona logura naiz. Uste dut banoala zugana. Begiak ixteko dauzkat. Bai, banoa amona. Itxaron, hor egongo naizela laster zurekin. Euskaraz egingo dizut hitz amona, zin dagizut. Banoa zugana, banoa...

ipurterre sa

Maiatzaren 11n banatu genituen aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak, Unibertsitate Laboralean. Adi-adi egon zineten denak, eta irabazleek pozarren jaso zituzten sariak.

Aurten ere lan mordoa egin duzue, ipuin eta gutun askotxo jaso ditugu, eta eskerrak eman behar dizkizuegu egindako lanarengatik.

Aurtengo irabazleak ondorengoak izan dira:

LH 1-2: **Zoihartze Elizegi** (Iturburu)

LH 3-4: **Salma Aghbalou** (Urkizu)

LH 5-6: **Ainara Landa** (La Salle Isasi)

DBH 1-2: **Miren Ferrero** (La Salle Azitain)

DBH 3-4: **Izei Sologaistua** (Mogel Isasi)



Ainara Landa (La Salle Isasi) gelako lagunenekin.



Miren Ferrero (La Salle Azitain), etxekoekin pozik.



Salma Aghbalou



Izei Sologaistua (Mogel Isasi) ikaskideekin.

ari banaketa



gunekin.



ou (Urkizu).

Txikitto! irudi berria dauka

Ipurterreko sariez gain, Txikitto! aldizkarirako antolatu genuen irudi-lehiaketaren irabazleak ere saria jaso zuen. Aldatze ikastetxeko Anne Luengo izan da irabazlea, eta urritik aurrera berak egindako irudia izango da Txikitto!-ko logotipo berria. Zorionak!



Anne Luengo



Anne Luengo gelako lagunekin.




Zoihartze Elizegi (Iturburu) ikaskidez inguratuta.

ETXeko ARTISTA

Poxpolo-kaxa armairutxo

Materiala:

- 8 poxpolo-kaxa txiki
- Itsasgarria
- Soka
- Artaziak
- Koloretako gomaeva



Pausoak:

- 1.- Poxpolo-kaxak hustu. Bi zulo txiki egin eta sokarekin heldulekua egin, argazkian ikusten den moduan.
- 2.- Lauko bi zutabe egin, poxpolo-kaxak bata besteari itsatsiz.
- 3.- Kubo itxura hartu duenean, inguratu gomaeva beltzarekin, eta itsatsi.
- 4.- Gure armairutxoari Rubik kuboaren itxura eman diezaiokegu. Horretarako koloretako gomaeva karratutxoak moztu eta itsatsi kuboaren inguruan.

Bola-jokoa

Ti-ta!

Behar duzuen ez da asko:

Plastikozko 6-10 botila, tapoi eta guzti. Tenis-pilota, pintzelak eta margo gorria eta zuria. Margotu botilak margo zuriarekin. Botilaren lepoaren azpian margotu bi marra zabal margo gorriarekin. Tenis-pilota margotu gorritz eta utzi ondo sikatu arte. Den dena ondo lehortu denean, jar itzazu botilak "bowling" posizioan eta... jolastera!



etxeko SUKALDARIA



Doraemonen Dorayakiak

OSAGIAK

(8 dorayaki egiteko):

- ✓ 100 gr irin
- ✓ 50 gr azukre
- ✓ 2 arrautza
- ✓ Koilarakada 1 ezti
- ✓ Koilarakada erdi Royal legamia
- ✓ 30 ml ur
- ✓ Nocilla edo Nutella



PAUSOAK

- 1.- Arrautzak irabiatu ontzi batean, eta gehitu azukrea eta ezti eta irabiatu berriro. Ondoren irina eta legamia bota.
- 2.- Ura gehitu eta gero, nahasketa guk nahi dugun moduan gelditu dela egiaztatzeko, koilara batekin hartu eta hari fin baten antzera jausten denean listo dago. Potoloegia badago ura bota, eta oso likidoa badago, irina bota.
- 3.- Film batekin estali eta utzi 25-30 minutu. Ez du pikorrik izan behar.
- 4.- Koilara handi batekin hartu masa eta plantxa beroan utzi. Biribila osatuko da, ez ukitu. Burbuilak irteten hasten direnean buelta eman. 20 segundo eta kendu plantxatik.
- 5.- Hozten utzi eta nocillaz edo nutellaz bete. Mermeladaz, txokolate txuriz... ere bete ditzakezue. Itsatsi bi aldeak eta listo! Doraemonek moduan, zuek ere Dorayakiak jatera!

Hodei-txupatxusak

OSAGIAK

- ✓ Gozoki-hodeiak,
- ✓ Txokolatea (zuria, beltza edo koloretakoa)
- ✓ Lakasitoak,
- ✓ Koloretako bolatxoak
- ✓ Makiltxoak.

PAUSOAK

Txokolatea urtu eta pixkatean utzi hozten. Hodeitxoa makilan sartu eta busti txokolatean erdiraino. Txokolatea erabat hoztu aurretik apaindu lakasito eta koloretako bolatxoekin. Makiltxoei ondo eutsiko dien azukre edo arroz bezetako ontzi batean tente utzi ondo lehortu arte.



ikastetxeetako berriak



SAN ANDRES ikastetxean Asier Altuna, “Amama” pelikularen zuzendaria izan dugu. 5. mailako ikasleek “Pelikulak” proiektua landu dutenez, Asierren bisita oso lagungarria izan da.

ALDATZEko ikasleek Untzagan egon ziren apirilaren 28an SAME Hezkuntzaren aldeko ekintzetan parte hartzen.



1. eta 2. mailak apirilean Lapurreketan.

ARRATEKO ANDRA MARI IKASTETXEAN bi pelikula ikusi genituen martxoan, Surfak zoratuta eta Manny McPhee Haurzain miragarria. LHko 2. ziklokoak Debagoiena ezagutzera joan ziren. Leintz Gatzagan erdi aroko armarrak, etxeak eta harresiak ikusi ondoren, Gatz museoa eta Jakion kontserba-lantegia bisitatu zituzten. Irrati-saioak ere martxan jarri ditugu eskolan eta asteazkeneko gela batek eskola guztiarentzat prestatzen ditu. 3. mailakoek kultur arteko bazkaria egin zuten gelan. Ikasle bakoitzak etxean prestatutako janari desberdinak eta goxoak probatu zituzten.



“The World Fair” Munduko Azoka **ITURBURUN**. Arrakasta handiko proiektua da argazkian ikus dezakezuen. 6. mailakoek munduko azoka bat antolatzen dute ikastolan. Munduko herrialde ezberdinak aurkezten dituzte eta janzkera, janari, eskulan, ohitura eta jolas desberdinak azaltzen dituzte ingelesez.



AMAÑAKO ikastetxean Liburuaren Nazioarteko Eguna zela-eta, familiak gonbidatu genituen eskolara euren seme-alaben taldeei ipuinak kontatzeko. Gurean kultura eta hizkuntza aniztasun handia dugu eta hainbat herrialdeetako ipuinak entzun genituen, hizkuntza ezberdinetan.

URKIZU eskolako 3. mailakoek igeriketa ikastaroa izan zuten apirilean, eta 4. 5. eta 6. mailako ikasleek “Bram Barrabas” pelikula ikusi zuten Coliseoan. Horrez gainera Odol Emaila Elkarteko bisita jaso zuten 6. mailakoek, eta 3. ziklokoak Arantzan egon dira.



LA SALLE ikastetxean La Salle Astea ospatu genuen apirila amaieran. Asteazkenean zehar Juan Bautistaren bizitza landu genuen geletan eta 29an ospakizuna izan zen. Olinpiadak ere izan genituen eta horretarako, jolasorduetan, hainbat jolas egin genituen. Talde bakoitiak bikoitien kontra, eta aurtengo irabazleak bakoitiak izan dira.




Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **UXUE ZELAIA** izan da.

Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!



BIDALI ERANTZUNA EKAINAK 1 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

Adina Tel.....


bitxikeriak



Granada batek 200 eta 1.400 hazi artean izaten ditu.




Urrea dugu gorputzean! 70 Kg pisatzen duen pertsona batek 0,2 mg urre dauka. 40.000 pertsonaren urre guztia elkartu beharko litzateke 8 gramoko eraztun txiki bat egiteko.



Errekorren Guinness Liburuaren arabera, Estatu Batuetako liburutegi publikoetan gehien lapurtzen den liburua Errekorren Guinness liburua bera da.



Urte gehien hartzen dituzten elefanteak askotan gosez hiltzen dira, euren hortzak gastatuegiak daude eta ezin dute janaria mamurtu.



Albert Einstein jakintsuak ez zuen inoiz kotxerik eduki, ez eta gidatzeko baimenik ere! Oso zaila zela zioen eta nahiago zuen oinez ibiltzea.



Amaren sabelean hazten garen abiadura berean hazten jarraituko bagenu, 10 urterekin 16 metroko altuerara iritsiko ginateke.



Munduko arbolarik altuenak Kalifornian hazten dira. Sekuoia gorriak dira eta 115,5 m hartzen dituzte. 30 pisutako eraikin bat baino altuagoak dira.




Globo aerostatiko batean bidaiatu zuten lehenengo bidaiariak ardi bat, oilar bat eta ahate bat izan ziren, 1783. urteko irailaren 19an.



Azal gorria duten platanoak existitzen dira. Zapore gozoa dute, masusta gorrien antzekoa.




Egunero galtzen dugu ilea, 50-100 ile egunean



Alferrenen digestioa oso geldoa da. Janariak 11 eta 30 egun artean behar izaten du digestio-sistema osoa zeharkatzeko.




Pertsona batek 21.000 aldiz kliskatzen ditu begiak egunean, eta 150.000 bider asteen... Urtean... 8 milioi aldiz!



LUR BELDUR (6-7 URTE)

Beldurra lehoi bat da. Eta barruan erbi bat du. Eta erbiak barruan uso bat. Eta usoak arraultza bat. Eta arraultza lehertu arte ez da hilko beldurra.




ANEKDOTAK (8-10 URTE)

Ane zortzi urteko neska bat da. Atzo, hitz berri bat entzun zion atso zahar bati Anek: anekdota. Aneri asko gustatu zitzaion entzundako hitza, akaso, esaten den aldiro bere izena esaten delako. Gaur, jakin du zer esan nahi duen hitz horrek. Eta jakin du hitz hori erabili beharrean pasadizo esan dezakeela. Baina Anek anekdota esatea nahiago du. Eta erabaki du berari gertatutakoak idatzi egingo dituela.




ILARGIKO ZAINDARIAK (10 URTETIK AURRERA)

A8 1 androidea naiz eta ilargira eraman nahi zaituztet, abentura zirrargarriak bizitzera. Ilargiko Beta hirian Amaia, Meri, Dorian eta Anghelo neska-mutikoak nirekin bizi dira, eta zeregin garrantzitsu bat daukagu bertan: Lurra espaziotik etor daitezkeen arriskuetatik babestea. Horretarako, Patxi zientzialariaren laguntza ere izango dugu. Zatozte gurekin eta laguniezaguzue Lurra zaintzen!



IZARRA ETA ASTOA (6 URTETIK AURRERA)

Gaueko zero ilunean gaizki itsatsita zegoen izar txiki bat askatu eta Lurrera jausi zen. Ez zuen, ordea, edonon lur hartu. Planetako toki posible guztietatik... ezetz asmatu zein aukeratu zuen!



ADA GOTH ETA ULU MISTERIOTSUAK (8 URTETIK AURRERA)

Ada Gothen abenturen hirugarren liburua. Adaren aitak, Lord Goth-ek, txakurrentzako literatura lehiaketa bat antolatu du eta lehiaketan parte hartuko dute idazle ezagunen txakurrek. Hainbat tranpa eta trikimailu izango dira lehiaketan, eta denak barnealdeko basozain ilun Maltraversen animaliek irabaz dezaten egindakoak...



BETI IPARRALDERANTZ (10 URTETIK AURRERA)

Europako atea jotzen edo jo gabe ate gainetik pasatzen diren etorkin horiek nondik datoz? Malin, Senegaletik hurbil dagoen Kayes herrian jaio zen Drissa. Han bizi izan da bere gurasoekin eta bi anai-arrebekin eta haurtzaroaren gomuta atseginak ditu, baina egun zoritxarreko batean aitak lanpostua galdu eta bizibidearen bila hasi behar izan zuen familia osoak.



zu margolari!